

Funtsezko baliabideak enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea. Enpresa batek funtsezko baliabide ezberdinak ditu: Baliabide fisikoa, baliabide intelektuala, giza baliabideak eta finantza baliabideak.

Behar izango ditugun baliabide fisikoak kanalaren proiektua aurrera ateratzeko hurrengoak dira. Lehendabizi. etxe moduko bat rezezio batekin edukiko degu eta hortik gure kanalean arraun eta egon nahi duten bezeroekin ondo antolatuko gera noiz etortzeko eta zenbat ordaintzeko. Baliabide hau oso garrantzitsua izango da. Hondeagailua sartu beharko dugu ibaian, ez behar ditugun arroak eramateko. Plastikozko piboteak korrontea sortzeko beharko ditugu. Ur bonba bat beharko degu eta kotxeak aparkatzeko gunea gure bezeroak errexago etortzeko. Taberna bat eraiki beharko dugu, etorriko diren familiak eguna pasatzeko zerbait erosteko aukera edukitzeko.

Baliabide intelektualei eta giza baliabidei dagokionez, Kanala sortzeko arkitekto bat beharko degu gure ibai artifiziala diseinatzeko, lurraren kondizioa aztertuko duen mutil bat obra ondo egiteko eta ez lehenengo uhaldean arroka guztiak eramateko bilatuko dugu. Gure sormena erabiliko degu publizitatea sortzeko eta propaganda zabaltzeko Euskal Herritik. Iratik dauzkan informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak eta Mikelek dauzkan salmentetarako eta antolaketarako abileziak rezezioan laguntzeko. Gu guztien artean tabernaren antolaketaz arduratuko gera janaria eskeintzeko eta mailen antolaketa kanala inguruan.

Finantza baliabideak berriz, enpresa ezberdinetatik dirua lortuko degu, izan ere, diru asko behar da gure proiektua aurrera eramateko eta bankuak ezingo digu diru guztia eskaini. Alde batetik, B.A.T enpresak proiektu bat dauka finantzatzeko gipuzkoako kirolari gazteak olinpiadetara eta mundialetara joateko. Orain dela 5 urtea hasi ziren proiektu bat piraguismokoei finantzatzeko eta Maialen Chourraut atera duen dominekin B.A.T gehiago hasi da finantzatzen kirol hau. Beraz, kanala sortzeko proiektuan elkarte hau finantzaketan lagunduko du. Beste aldetik, Espainiako piraguismoko taldeak baita ere lagunduko zuen finantzaketarekin. Donostiko udalari ere laguntza eskatuko genuke azkenean Maialeni esker finantza iturri ezberdin lortuko genuke oso erraz.